

# Genero desberdintasunak goi-mailako ikasketa prozesuetan: diagnostikoa eta tresnak

ECTS kreditu kopurua: 4

:

## Informazio garrantzitsua – 2024ko urrian hasteko pilotu-ikastaroa

Ikastaro hau Parte Hartuz Ikerketa Taldearen, Berdintasun Zerbitzuaren eta UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren arteko elkarlanean bultzatutako esperientzia pilotu bat da.

Ikastaroa Zurekabuz modalitatean eskainiko da 2024ko urritik abendura arte. Parte hartzen duten irakasleek hamabost egunero irakurri beharko dituzte 5 gaietako materialak, eta foroetan parte hartu. Honetaz gain, bi zeregin nagusi izango dituzte. Lehenengoak ikasgelako errealitatearen diagnostikoa bilatzen du, alegia, generoak ikasketetan eragina duen identifikatzea hiru testen bidez. Bigarrenak ikasketetan genero ikuspuntua txertatzeko estrategia desberdinen inguruan hausnartzea bilatzen du.

Ikastaroa pilotua da duen jarraitzeko bokazioagatik, baina baita irakaskuntza-esperientzia honetatik abiatuta duen hobetzeko bokazioagatik ere. Ondorengo edizioetan, parte hartzen duten irakasleen ekarpenak aurkeztea espero da (adibidez, testen emaitzak edo esku hartzeko proposamenak).

Ikastaroak antolatzaileek partaidetzan, genero analisisian eta ikasketen hobekuntzan duten esperientziatik edaten du. Hala ere, ikastaroak baditu zenbait muga. Ez du txertatzen ikasgeletan presente dauden errealitate ez bitarrak aztertzeko ikuspegia. Analisia xeheagoa da ikasle neskekin lan egiterako orduan, mutilekin baino. Azkenik, ikastaroa antolatzaileok gai honen inguruan sakontzeko, eta aurrera eramaten ari garen ikerketa prozesuaren parte bezala ulertzen da.

Ikastaroaren matrikula 2024ko irailaren erdialdera irekiko da, eta gehienez 50 ikasle izango ditu.

## Nori zuzendua:

Edozein jakintza arlotako UPV/EHUko irakasleak.

## Sarrera/ Ikastaroaren deskribapena

Ikastaro honen helburua goi-mailako hezkuntzan genero perspektiba txertatzeko sentsibilitatea duten irakasleei erantzuna ematea da, tresna praktikoak emanaz eta elkarbanatuz. Ikastaroa genero arloan aurretiko sentsibilitatea duten irakasleei dago zuzendua, bai irakasteko moduek, edukiek eta praktikek erreproduzitzen duten androzentrismoari modu onenean nola aurre egin kolektiboki hausnartzea beharrezko ikusten dutenak.

Sexu genero sistemari testuingurua eman ondoren, UPV/EHUko berdintasun zuzendaritzaren diagnostikoa aurkeztuko da. Oinarri honetatik abiatuta, ikasleekin aurrera

eramandako emaitzak aurkeztuko dira, identifikatzeko zein modutan eragiten duen sexu genero sistemak ikasketa prozesuetan.

Zehazki, honako dimentsioak aztertuko dira. Publiko, produktibo eta arrazional ardatzetan, eta pribatu, erreproduktibo eta erlazional ardatzetan oinarrituta, zereginen banaketa aztertuko da. Honek lagunduko du irakasleen begitan ezkutua den lana, eta ebaluazioan neurritz kanpo baloratzen diren zenbait aspektu problematizatzen. Genero arau maskulinoak eta femeninoak aztertuko dira, baita ikasleek asumitutako rola, lan kargan eta ebaluazioan dituzten efektuetan arreta jarritz. Modu berean, generoak iruzurgilearen sindromean, lan kooperatiboaren gaitasunetan eta ikasketa estiloetan duen eragina aztertuko da. Eta azkenik, beharrezkoak diren estrategiak diseinatzeko irakasleek euren ikasgelak diagnostikatzeko tresnak eskainiko dira.

Ikastaroa genero perspektibatik lan kooperatiborako estrategiak diseinatzera bideratuta dauden zenbait orientazioarekin bukatuko da.

### **Ikastaroan zehar garatuko diren ikasketa emaitzak**

1. Ikasgelan ematen diren elkarrekintzetan genero arau eta aurreiritziek duten eragina aztertu.
2. Ikastaroko parte hartzaileek gradu eta graduondokoetan ematen dituzten irakasgaien curriculum formala kritikoki eta genero ikuspuntutik aztertu.
3. Gradu eta graduondoko irakasgaien curriculum ezkutua kritikoki eta genero ikuspegitik aztertu.
4. Ikasketan generoak duen eragina diagnostikatu, iruzurgilearen sindromearen eragina neurtzen duen CLANCE testaren, ikasketa estiloen KOLB testaren eta lan kooperatiborako gaitasunen balorazioa neurtzeko SAE-HELAZek egindako testaren emaitzen analititik abiatuta.
5. Irakaskuntza modalitate desberdinetan genero ikuspuntua txertatzea erraztuko duten tresna metodologikoak ezagutu eta ko-diseinatu.

### **Metodologia**

**Zurekabuz** ikastaroa

2024ko urrian hasi eta 2024ko abenduan bukatuko da.

Irakasleek materialak irakurri beharko dituzte, eta foroetan parte hartu, hurrengo kronograma jarraituz. Aipatutako hiru testak aplikatu beharko ditu ikasgelan (ikastaroaren antolatzaileek jarriko dituzte eskura), eta emaitzak interpretatu. Azkenik, ikasgelan desberdintasunak kudeatzeko estrategia edo tresnak diseinatu beharko ditu.

### **Edukiak**

5 moduluz osatutako ikastaroa proposatzen dugu, modu honetara antolatuta.

#### **1. Sexu-genero sistemari aurrerapen bat. Generoaren sozializazioa**

Modulu honen helburua desberdintasunei hurbilpen normatibo bat eskaintzea da, genero-desberdintasunak ulertzeko oinarritzko nozioak aurkeztuz: sexu-genero sistema, egitura patriarkala eta generoan oinarritutako dikotomiak, besteak beste.

Ariketa: test bat

## 2. Genero desberdintasunen diagnostikoa: hurbilpen orokor bat

Azken hamarkadatan genero-desberdintasunek izandako mugarri, aurrerapen, oztopo eta erresistentziak erakutsiko dira, eskala anitzetan.

Ariketa: test bat

## 3. Genero desberdintasunen diagnostikoa unibertsitatean

Helburua goi-mailako ikasketetan identifikatutako genero-desberdintasun forma desberdinak erakustea da, maila instituzionalean eta unibertsitateko elkarrekintzetan. Berdintasun Zuzendaritzak egindako diagnostikoaren (2023) emaitzak aurkeztuko dira.

Ariketa: test bat

## 4. Genero desberdintasunen diagnostikoa klasetan

Sexu-genero sistemak ikaskuntzan, ebaluazioan eta lanen banaketan nola eragiten duen eta zein efektu dituen aztertuko da. Maila indibidual edo subjektiboan aztertuko da sexu-genero sistema. Edukiek ikasleetan jarriko dute arreta, eta ikasketa prozesuetan zentratu.

Ariketa: iruzurgilearen sindromearen, gaitasun kooperatiboaren balorazioaren eta ikasketa estiloen testak ikasleei pasatu, eta emaitzen inguruko hausnarketa kritikoa egin.

## 5. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunei aurre egiteko tresna eta proposamen pedagogikoak

Aurreko moduluak eskainitako diagnosiaren aurrean, ikasketa prozesuetan ematen diren patroi sexistak gainditzeko tresna eta proposamen pedagogikoak eskaintzea da gai honen helburua.

Ariketa: proposamen formatibo bat

### Zereginak

RA Zb.	Zeregin mota	Arduraldia
1, 2, 3, 4, 5	- Testuen irakurketa eta testa egitea	50h
1, 2, 3, 4, 5	- Foroetan parte hartzea	15h
4	- Ikasgelan 3 testak egitea	20h
5	- Ariketa egitea	25h

### Ebaluazioa/ Akreditazioa

Akreditazioa lortzeko baldintzak:

1. 5 gaiei lotutako 5 testak eitea
2. Foroetan parte hartea
3. Taldearen diagnostikoa, CLANCE, KOLB eta Gaitasun kooperatiboaren testen bidez
4. Ikasgelan genero ikuspuntua txertatzeko proposamena

## **Datuak**

**Luzapena:**

**4 kreditu ECTS (100 h.)**

**Datak**

2024ko urritik abendura arte

**Kanala:**

Egelapi

**Partaide kopurua**

50 plaza

**Hizkuntza**

Erderaz eta euskaraz

**Campus**

UPV/EHU

**Irakasleak:**

Andere Ormazabal, Ihintz Permach, Uxue Zugaza, Igor Ahedo Gurrutxaga (Zientzia Politikoa), Miriam Ureta, Izaro Gorostidi, Mila Amurrio (Soziologia), Onintza Odriozola (Hezkuntza)

**Izen emateko epea:**

Izen emateko epea irailean zabalduko da.

**Izen emateko baldintzak eta matrikularen ezeztapena**

Irailean informatuko da